

# Ilargia eta atzamarra, biak balioan jarri!



Iñaki Antigüedad  
AMAIURREKO  
DIPUTATU OHIA

Ezker subiranistarena bezalako prozesu bati noizean behin osasuna ebaluatu behar zaio, prozesua aldatzailea ala aldakorra izaten ari den argitu eta horren arabera jarduteko. Eta gu-reak aldatzailea nahi du izan. Osasun azterketan zantzu kuantitatiboak, zenbakitan emanak, eta kualitatiboak hartu behar dira kontuan. Hauteskunderik hauteskunde prozesuak lortutako botoen segidak ematen du neurri kuantitatibo, botoen atzean pertsonak izanik. Eta horri erreparatuta ez dirudi prozesuak duen potentzialtasun soziala lortzen ari denik, ez behintzat jauzi kualitatiboa emateko bestekoa. Hortaz, hauteskunde guztiak dira inportanteak, urrunekoak ere bai, prozesuak eskatzen duen pausa gabeko bidean ezin baita inoizko lehia kuantitatiboa ezker subiranisten espazioa hemengo burujabetza gabeko kudeaketan edo hango burujabetzapeko ezkerrean ari direnen esku utzi. Burujabetza Ber-ton dugu apustu soziala; eta Aldaketa, bide.

Zantzu kualitatiboak zailak dira neurtzen; “ustekabeen” azalera datozen arte. Edonola, noizbait jauzi kuantitatiboak emango baditugu, gizartean zabal sustraitutako nahi eta beharrengatik izango da. Katalunia dugu honetan ikasgai, derrepentean, ustez, azalera delako hango imaginario sozialean luze metatutako sumindura. Ez da gure egoera, suminduak izateko hamaika arrazoi me-

tatuta ere; gauzak ondo egiten ez ditugun seinale. Gogoeta egin beharko genuke horretaz, batez ere iragana ez baizik eta geroa helburu, eta oraina helbide, dugunok.

Hortxe koska, gure apustu sozio-politikoaren ardatz diren Burujabetza eta Aldaketarako bi-deak, apropos pluralean idatzita, zabaldu, sakondu, uztartu eta gizentzen asmatzea, kontraesanak kontraesan. Kualitatiboa ere, biharko jauzien bultzagile. Hauteskundeetatik harago, erakundee-tatik honago, burujabetzaren beharra pedagogiaz zabalduz, sinesgarritasunaz lortuz. Akabo, beste-la. Eta horrek pentsamoldearen iraultza eskatzen du, beste iraultzetan pentsatu baino lehen.

Bidea ibiltzen egin. Esanak eta eginak biderkatu behar, prozesuak behar duen egitura poliedrikoa sendotzeko. Poliedrikoa, mami, eta aurpegi, asko eta askotarikoak behar dituena. Asko dago horretan ikasteko, nor bere hartzen duen esparru motzekoa prozesuaren osoa ez baldintzatzeko bestekoa. Dena da inportantea, baina are inportanteago prozesuak bidea egitea, eraginkor. Prozesuak egutegiko egun guztien beharra du; gehiago baleude horiena ere. Hauteskunde kanpainakoak barne. Baliatu ditzagun ilargia eta atzamar-punta, biak ala biak, balioan jartzeko; beste batzuk tematuko dira atzamar-puntan, alde biko izateko baten bat etorriko delakoan. Gu geurean, zintzo. ■

## Turroia eta lastoa



Oihana Etxebarrieta  
KAZETARIA  
@BetaurrekoMorea

Loteria saltzailearen hitzak, urtero zenbaki bera erosten duenaren argazkia; pasa orria, erosketak eta deskontuak; itxi egunkaria. Telebistan krisi garai hauetan gabon afari eta dekorazio eder baterako gomendioak; aldatu ka-tea, turroiaren iragarkia; itzali telebista. Irratian Eguberriak kanpoan pasatuko dituenaren hitzak, bata Alemanian, bestea Txinan eta azkena Kana-dan; itzali irratia.

Ez dira oraindik egun seinalatu horiek baina zenbait komunikabidek izango dituzten hizke-ta gaiak aurreikusi ditzaket. “Ez daukagu zertaz hitz egin”, eta beraz, betiko kontuak errepikatuko dituzte. Guri interesatzen zaizkigulako kontatzen

dizkigute edo hainbeste aldiz aipatuta azkenik in-teresatzen zaizkigulako?

Merkatuaren eta sistemaren logika jarraituz, urteko egun eta ordu guztietan zer kontaktuko zai-gun erabakita daukagu alde zurretik eta horrek gudan guztiongan duen eragina ikaragarria da (irakur agenda-settingaz).

Horren aurrean gure kabuz egin beharko dugu aurrera edo hilko gara. Hil ideiez, grinez, ametsez, etorkizunez eta iraganez. Gure baliabideak ezagutu eta erabili behar ditugu, baina ez sakralizatu. Ikus dezagun gure begian dugun lastoa, atera dezagun eta Argiago jarraituko dugu bidea. ■